

# BERRIGARA

26. zenbakia JARDUN Elkarteak, Bergara 1996, martxoak 8



## Emakumeak protagonista



**CITROËN**

# ION AUTOAK

Urarte, 10 BERGARA • Telefonoak: 76 47 49 / 76 47 73 • Faxes: 76 54 27

*Eskaintza berezia: Martxoan, 400.000 pzta.rainoko  
DESKONTUAK eta FINANTZIAZIO BEREZIA*



# ELKAR

## ELEKTRAGINTZA



Mota guztietako instalazioak



76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.  
**BERGARA**

**96ko EZKONGAIK**



- **BAYON.** Donostia. Andregaiaren jantzia.
- **TAYLOR-HARRODS.** Gasteiz. Senargaiaren jantzia.

- **KINU ARGAZKI DENDA.** Bergara. Ezkontzako argazki erreportaia.
- **ETXEBERRIA ERLOJU ETA BITXITEGIAK.** Bergara. Urrezko eraztunak eta zilarrezko 13 erresak.
- **IKER SUKALDE ALTZARIAK.** Arrasate. Sukalde mahaia eta aulki bilduma.

- **BERRIAK PERTSIANAK.** Eibar. Etxerako osagarrien bilduma.
- **CODORNIU.** Ezkontzarako Cava.
- **OCASO ASEGUROAK.** Eibar-Beasain. Ezkongaiantzeko etxe eta bizitza aseguroa.
- **KIMETZ.** Azpeitia. Ezkongaien ileapainketak.
- **ARKAUZ HALTZARIAK.** Aretxabaleta. Koltxoia eta xafrazko oinarriidun bilduma.

- **EROSKI BIDAIAK.** Kanarietara astebeterako bidaia.
- **ETXEBERRIA.** Azpeitia. Mahai tresneria, baxera eta kristaleria.
- **LASA JATETXEA.** Bergara. 4 lagunentzako ezkontza bazkari edo afaria.
- **IBARPLAS.** Itziar. 50.000 pzta.ko txartela.
- **IRIS LORADENDA.** Azkoitia. Ezkotza egunerako lore apaingarria.

**1997ko martxoaren 31a baino lehen ezkontzeko asmotan bazara, bete orri hau eta bidal ezazu ahalik eta azkarren helbide hauetako batera: HERRI IRRATIA LOIOLA. Azpeitia. 26 postakutxatila Azpeitia. HERRI IRRATIA-RADIO POPULAR. Garibai, 19 Donostia. 1.849 postakutxatila. Donostia.**

Senargaiaren izen eta abizenak: ..... Telefonoa: .....  
 Helbidea: ..... Herria: ..... Kode postala: .....  
 Andregaiaren izen eta abizenak: ..... Telefonoa: .....  
 Helbidea: ..... Herria: ..... Kode postala: .....  
 Ezkontza eguna (gutxi gora-behera): .....



## BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA  
20570 Bergara  
☎ 76 03 97 • Faxa: 76 08 19

## Argitaratzailea:

JARDUN Elkarte.  
Masterreka, 13 Bergara.  
Tinoa eta Faxa: 76 08 19

## Zuzendaria:

Eneko Azkarate

## Erredakzioa:

Eduardo Mendibil  
Mikel Elkoroberebizar  
Irene Larrañaga

## Maketazioa:

Eneko Azkarate

## Publizitatea:

Alex Azkarate

## Harpidetzak:

Borka Elortza

## Bestuen zuzenketak:

Estepan Plazaola

Mariipi Laskurain

Alex Labaien

## Erredakzio kontseilua:

Borka Elortza

Miguel Angel Elkoroberebizar

Alex Labaien

## Komikiak:

Bittor Rodriguez

Borka Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugalde

Iñaki Azkarate

## Banaketa:

Antxon Angorri taldea

## Tirada:

1.000 ale.

## Inprimategia:

Beritu Koop. Elk. (Zubillaga, Oñati)

## Copyright:

BERRIGARA

## Lege gordailua:

IS 50/91

## SSN:

130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iruzkinen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Lepoederriko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

## Z E B E R R I D A ?

## IÑAKI MADINABEITIA


### Arans-Gi gorren eskolako

- Ikasturte honetan gorrei zuzendutako hainbat ekintza antolatzen ari zarete...

- Helburua gorrek beraien protagonista izatea litzateke, beren nortasuna garatzen ari diren momentuan eredu gorrak izateko. Hau da, gazte gorrei nagusi gorren esperientziak transmititzea nahi da, beraien autoestima edota pertsonalitatea garatzen joateko. Horretarako, hamabostean behin, mahai-inguruak, hitzaldiak edota bideo emanaldiak antolatzen ditugu, asteazkenetan arratsaldeko 4 t'erdietan.

- Gorrei bakarrik zuzenduriko ekitaldiak?

- Bai, batez ere gorren kolektiboari zuzendutakoak dira. Horrez aparte irakaskuntzan ari den



jendea ere etorri izan da eta zenbaitetan gorren lagunak ere bai. Ikusten genuen horren beharra zegoela, gorren beharrak ezagutu eta lantzeko. Eta gazteekin lan egiteko nagusien laguntza beharrezkoa da. Gorrek bere izakera propioa daukate eta hori lantzeko eskolak bitartekari lana egiten duela esan daiteke.

**"Gazte gorrei nagusi gorren esperientziak transmititzea da hitzaldien helburua"**

## I T U R R I O N E T I K

### Pazkuetako rock kontzertuen egitaraua prestatzen ari dira

Dagoeneko herritar talde bat Pazkuetan izango diren rock jaialdien programazioa prestatzen ari da. Ohizkoa den bezala, aipatutako rock jaialdi hauek Bideberrin izango dira eta nobedade bezala, Udalak Pazkuetako igandean Plazan rock kontzertu bat antolatzeko aukera eman die.

Oraindik izenik aurreratu ezin den arren, badirudi puntako taldeak ekarriko dituztela aurten, tartean BAP, Deabruak Teilatueta edota Naco Goñi eta bere taldea. Pazkuak maiatzaren 24tik 28ra bitartean ospatuko dira aurten.

E S A N  
D U T E

"Daewoo Euskal Herrira erakartzeko oztoporik nagusia Euskal Herriak kanpoan duen indarkeriaren irudia izan da"

**JAVIER RETEGI**  
Industria Sailburua  
EL DIARIO VASCO

"Baina aste honetan gonbite berezia jaso du [Axunek], emakume langilearen eguna ospatzeko deia. Aditu du baita baserriko emakumearen bizi baldintzak hobetu eta gazte gehiago baserriratzeko zerbait egin nahi dela. Ez letorke gaizki, ez. Egia esan, berak, bizitza osoan lanean, ez du horretarako betarik ere hartu, eta 65era badoa ere, ezin jubilazio pentsiorik jaso. Eta berak baserriko ardura eraman arren, noski, baserriko titularra, dagozkion eskubideekin, gizona. Eta okerrena, edozein inbertsio egiteko oraindik 80na urtetik gurasoei begira egon behar"

**MAITE ARISTEGI**  
Baserritarra  
EGIN






### LA ISLA DE LAS CABEZAS CORTADAS

Ostirala: 22.30.  
Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.  
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.  
Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).



### LA REINA DE LOS BANDIDOS

Osteguna: 20.00.



▼▼ **Erakusketa.** José Tejadaren miniatura erakusketa Kultur Etxean ikusgai egongo da igandera arte. José Tejadak, egurra eta burdina erabiliz, miniaturan, nekazal tresnak, hainbat monumentu edota jaiotza bat egin izan du. Astebukaeran 12etatik ordu bietara eta 6etatik 8etara.

## Zinea

▼▼ **Renny Harlin** zuzendariak piratei buruzko lehengo moduko filmea egin nahi izan du. 1668. urtean Kariben kokatua, *Morgan Adams* (**Geena Davis**) pirata baten alabak altxor baten mapa eskuratuko du eta *Dawg Brown* (**Frank Langela**) maltzurak mapa ez lapurtzeko ahalegin guztiak egin beharko ditu. Esklabuen subasta batean *William Shaw* (**Matthew Modine**) gaztea erosiko du *Morganek* eta biek altxorra bilatzeari ekingo diote...

▼▼ Benetako istorio batean oinarrituz, **Phoolan Devi** "Loren Jainkosa"ri buruzko filmea errodatu zuen **Shekhar Kapur** zuzendariak. **Devik** (**Seema Biswas** aktorea) Indiako gobernua kolokan jarri zuen berak egindako hilketekin, 1983an entregatu zelarik. Valladolid-eko Zine Jaialdiko lehiaketan parte hartu zuen filmea.

## Deiak

▼ **Bideoa.** Jardunek antolatuta, "Astakiloen abenturak eta kalenturak" haurrentzako bideoa bihar larunbata, hilak 9, 11etan Kultur Etxean. Sarrera, 50 pezeta.

▼ **Eski irteera.** Baqueira Beretera eski irteera antolatu du Pol-Polek martxoaren 23 eta 24rako. Prezioa 15.900 pezetakoa izango da. Informazio gehiago Pol-Poleko bulegoetan edota 76 48 51 telefono zenbakian.

▼ **Enplegu ekimenei** buruzko jardunaldiak martxoaren 13, 14 eta 15ean Kultur Etxean, 10etatik ordubatera. Izen-ematea (5.000 pezeta) Udaleko Enplegu eta Gizarte Arazoetarako Sailean (77 91 65 telefonoan).

## Ogia

▼ **Igandea 10:** Ogizun.

## FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 8:** Guallar.
- ▼ **Larunbata 9:** Estella.
- ▼ **Igandea 10:** Estella.
- ▼ **Astelehena 11:** Mozos.
- ▼ **Astearte 12:** Camacho.
- ▼ **Asteazkena 13:** Puy.
- ▼ **Osteguna 14:** Guallar.



# Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,  
SELF-SERVICE-A

Barrenkale, 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

# ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots,  
untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi ☎ 76 15 09



# Kubako margoak

## Victor Jesús González pintura erakusketa Naikarin

**Victor Jesús** González margolari kubarraren erakusketa ikusgai egongo da martxoan Naikari tabernan. Gonzálezek 28 urte ditu eta Heziketa Artistikoan lizentziatua da La Habanako Unibertsitatean. Aurreko irailean Kantabria eta Valladolideko ferietan Kuba ordezkatzeko gonbidatu zuten eta ondoren, Donostiako Arteleku zentroan lan egiteko aukera izan du eta, era berean, hainbat erakusketa egin ditu inguruko herrietan.

Gonzálezek erakusketak eta pintura lantzen duen arren, Nahikarin margoak bakarrik ikusi ahal izango dira. Bere hitzetan, "10 bat koadro dira eta pintura figuratibo abstraktoa egiten dudala esango nuke, inpresionismoa eta futurismoaren arteko lanak dira, abangoardiako pinturaren barruan kokatu daitezkeenak. Batetik, pintura figuratiboan, amatasuna edota bikotearen gaiak lantzen ditut eta, bestetik, promozionatzeko asmoz beste lan batzuk erakusten ditut. Azken hauetan nire herrian biltzen diren kulturak (afrikarra bereziki) jaki-



Margolari kubarrak 10 bat koadro ditu ikusgai martxo bukaera arte.

tera eman nahi izan ditut eta erretratu surrealista eta inpresionistak lirateke".

Erretratuetan kolore biziak dira nagusi eta Victor Jesúsek "gizonen burutik pasatzen den guztia" landu nahi izan du bertan. Horretarako, formen multiplizitatearen bidez, erretratuak, irudi erotikoak, bizitzaren alderdiak edota aspektu psikologikoak adieraztea bilatzen du Gonzálezek.

### Kuba eta Euskal Herria

Victor Jesús Kubako artista eta artisauen elkarreko kidea da gaur egun. Kubara itzuliko den arren, momentuz Zumarragan klaseak ematen lan egiteko asmoa dauka. Berak aipatzen digunez, "Kuban artista bat bere lanetik bizi daiteke, nabiz eta krisiak guztiongan eragina izan. Kubako Ondasun Kulturaleko Fondoak galerietan

banatzen ditu lanak eta batik bat turistek erosten dituzte".

Victor Jesús Agustín Cárdenas eskultore ospetsuaren ikaslea izan da. "Chillidarekin batera, munduko 5 eskultore onenen artean dago eta bere ikasle bakarra izan naizela esan dezaket. Niretzat oso aberasgarria izan da eta duen liburutegia ere oso baliogarria izan zait, neure lanean, asko ikasi dut...".

*Pepelu*

**Ilepaindegia**

Zurradero, 2 ☎ 76 43 07  
**BERGARA**

**ARDATZA**

*Brikolaketa*

Masterreka, 4 beheka ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
  - Apalak
  - Kajoiak



**24an "Den denok"...**

Lehendabizi zorionak eman nahi dizkiot "independentzia lortu arte jo-ta-ke!" lemapean 35.000 pertsona bildu zituzten antolatzaileei. Azken aste hauetan telebistek, prentsa ezberdinek eta hainbat politikok Euskal Herriari bota dioten "Hor dago"aren erantzun aparta ikusi eta entzun ahal izan bait genuen Euskal Herritarrok.

Argi lagatzen du Herri honek egunero ez daukaja inolako asmorik borroka gelditzeko, badakigu era berean bidea zaila eta mugatua dela baina badakigu herriarekiko apostua irabaziko dugula eta muga guzti horiek apurtzeko gai garela (horra hor adibide gisa 35.000 pertsonen independentzi oihu bateratua).

Orain badakigu ez garela "lau katu" eta ez gaudela "isolaturik". Eta benetan uste dut 24a bezalako egunak errepikatzeko eta beti gogoratzeko egunak direla.

Hau dela eta, "Den-denok" baturik zabal dezagun independentziaren atea, Euskal Herri aske batean soilik aurkituko dugulako euskaldunok benetako pakea.

I. I. (NAN: 72.581.220)

**Zuhaitz eguna**

Urtero egiten den bezala, baina aurreko inoiz baino isilago, pasa den otsailaren 17an Zuhaitz eguna egin zen. Erantzuna, aurreko ale batean Mikel Larrañagak eskutitz baten bitartez eta Berrigarak esaten zigutenez (10-20 ikasle) oso eskasa izan zen.

Egia esan, horrek ez gaitu gehiegi harritu; ikusirik Udalak, hau da, antolatzaileak, ze lan eskasa egin duen. Jakina da HB Udal Gobernutik kanpo dagoela, eta batzorde informatzaileetara mugatzen dela bere lana udaletxean. Zuhaitz egunaren gaia berriz obra, hirigintza eta ingurugiro batzordearen gain dago. Batzorde honetan parte hartzen dugun HBko bi zinegotziok, aurtengo zuhaitz asterako zenbait proposamen egin genituen, gure asmoa zuhaitzak landatzeari asetebe eskeintze atzen, ganorazko kanpaina bat eginez.

Beraz, gure lehenengo proposamena, zuhaitz astearen filosofia errekeratzea zen, orain dela bost urtera arte egiten zen bezela. Landaketak egiteaz gain ikastetxeetan hitzaldiak, bisita gidatuak etabar antolatzeko planteatu genuen. Gainera zuhaitzaren lehen azoka berezia egitea, non zuhaitzak saldu eta erakustez aparte beraien ezaguerri buruzko informazioa emango zen.

Herriko parkeetan ibilbide botanikoak antolatzeko dauden zuhaitz guztietan identifikazio plaka batzuk jartzea, beraien izenak ikasi ahal izateko, eta bukatzeko liburuxka bat argitaratzea proposatu genuen. Proposatu esaten dugunean ez da lan guztia teknikoaren eskutan lagatzea, gure proposamenak landuta ematea baizik. Erantzuna? Hiru aste beranduago Gobernuaren (tripartitoaren) erantzuna jaso genuen: "Otsailaren 17an Zuhaitz eguna egingo da, egun bakar batean landatuko dira eta Mendia Bizirik taldearen proposamenari jarraituz San Martzial eremuan arteak (talde honek emanikoak) eta haritz eta pagoak (Udalak erosita) landatuko dira".

"Parkeetan dauden zuhaitzetan izenak jartzeko proposamenari dagokionean onargarria da, eta gaia aztertuko da". "Ikastetxeetan hitzaldiak ematearena, printzipioz eragozpenik gabe". "Liburuxka ateratzeko estudio bat egingo da". "Zuhaitz azoka momentuz ez egitea". Laburbilduta, zer egin da? 200-300 zuhaitz sartu. Oso oihartzun eta partehartze eskasa izan duen egun bat izan da (normala, kontutan hartuta ez dela ezer egin). Landaketa sinboliko bat besterik ez da izan. Eskerrak Mendia Bizirik taldekoek proposamen zehatz bat ekartzeaz gain arteak ekarri zituztela, beraz eskaintza hau onartzea besterik ez da egin. Udalak egiteagatik ez du ia gaia kaleratu ere egin, horrela nola joango da jendea? Eta hurrengo urtererterte bukatu dira landaketak?

**HBREN IZENEAN, HIRIGINTZA ETA INGURUGIRO BATZORDEAN PARTE HARTZEN DUTEN ZINEGOTZIAK. JESUS MARI GARITANO ETA AITOR ARANZABAL**

**Futbito txapelketa**

Orain dela hiru aste, 1996eko otsailaren 9an, Labegarrietako futbito txapelketan parte hartzen duen batek idatzi bat egin zuen, kanpoaldean partiduak jokatzeko direnean sarerik jartzen ez dela salatuz. Baina berarekin hitz egin dugu eta konfunditu egin zela aitortu digu, sarea normalean ipini egiten baita. Hori dela eta, idatzi honen bidez Udaletxeari barkamena eskatu nahi diot, Bergarako "Lagunak" taldeko presidente bezala.

P. R. (NAN: 15.350.146)

**Tiira biraka**



**UNAI AZKARATE**



◆ **Artekale itxi egingo da**

Udaletxearen atzealdean egin behar diren hainbat hobekuntza medio, Artekale itxi egingo zaio trafikoari astelehenean. Baliteke astean zehar hainbat mozketaz izatea.

◆ **Lapurretak**

Jose Antonio Luque Plazako kiosko arduradunak azken astean izan diren lapurretak salatu nahi izan du.



Asteleheneko Plenoan jaietan txoznak jartzeko araudia onartu zen. ARTXIBOA

**HILDAKOAK**

- Juan Manuel Vera Torres**  
Otsailak 29, 77 urte
- Juliana Garmendia Murua**  
Martxoak 1, 96 urte
- Carmen Dios Jiménez**  
Martxoak 1, 55 urte
- Elisabeth Mujika Agirrezeziaga**  
Martxoak 1
- Jacinta Larrañaga Larrañaga**  
Martxoak 1
- Mikel Diez Bravo**  
Martxoak 4, 28 urte
- Juan Alberdi Iribekanos**  
Martxoak 3, 81 urte
- Felix Gallastegi Belastegi**  
Martxoak 3, 66 urte

**JAIOTAKOAK**

- Pello Etxaniz Agirre**  
Otsailak 26
- Nere Zurro Arrazola**  
Otsailak 26
- Andres Aristi Gardoki**  
Otsailak 28
- Maddi Elorza Agirregabiria**  
Otsailak 29
- Asier Larrea Sebal**  
Martxoak 1
- Garazi Cruz Larrañaga**  
Martxoak 1

# HBko zinegotziek Plenotik aldegin zuten astelehenean

HBko 7 zinegotziek Plenotik aldegitara erabaki zuten astelehenean, alkatetza beraiek ekarritako mozioa ez dela oraingoz aztertuko adierazi ondoren. Plenoko gai zerrendarekin hasi aurretik, HBkoek beste puntu bat ekarri nahi izan zuten Plenora. Bertan, azken hilabetetan BOTAK, Senideak elkarteak, SOS Arrazakeriak eta HBk berak aurkeztutako mozioak aztertzeko borondate eta gogo haundirik ez dagoela salatzen zen, aztertzeke dauden gai horiek lehen bait lehen Plenora ekar-

tzeko eskatuz. Alkatetza gai horiek behar den momentuan aztertuko direla erantzun zien eta jarraian HBko zinegotziek Plenotik aldegin zuten, Udal Gobernuaren osatzen duten alderdiei nahi dutena egin dezatela esanez.

Plenoak aurrera egin zuen. Kutxan Udalaren ordezkari izateko Victoriano Gallastegi alkatea eta Xabier Garaialde izendatu zituzten. Xabier Garaialderi dagokionez, alkateak esan zuen ez dagoela zinegotzia izan beharrik horretarako. Era berean Jacako Juan He-

rrerosek zientzia bildumarako egindako dohaintza (disekatutako hiru animalia) onartu egin zen eta elbarrituen aparkaleku erreserbak eta txoznak jartzeko araudiak onartu ziren. Plenoko azken puntuan, berriz, 710.000 pztako aurrekontua onartu zen Bolu auzoko estolderia konpontzeko.

Pleno amaieran alkateak prentsari adierazi zionenez, HBk erreklamaturako mozioak idatziak besterik ez ziren. Bere hitzetan, "mozio forma eman ondoren Plenoan aztertuko dira".

Zure  
konfidantzako  
denda



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE



### ◆ Presoak gose greban

Gestorek jakin arazi dutenez, Xabier Oregi "Panti" k igandean 15 egun beteko ditu gose greban. Astelehenetik aurrera, Jose Mari Etxaniz, Pedro Belastegi "Peito", Eukene Gracia eta Luis Etxeberria gose greban hasiko dira presoan Euskal Herriratzea aldarrikatzeko. Bestalde, Haritz Egidazu presoak aste honetan epaitu dute Madrilen. Hori dela eta Miguel Altuna eta Ipintza instituetako ikasleek greba egin zuten atzo osteguna. Aranzadi Ikastolako BBBko lehen eta bigarren mailako ikasleek ere greba egin zuten. Beste kurtsok zer egin duten ezin izan dugu konfirmatu.

### ◆ Inersoko programa

Inersoko termalismo edo balneario programan parte hartzeko interesa dutenek Bergarako Jubilatuetara jo dezakete eskaerak edota informazioa jasotzera. Irailetik abendura bitarteko txandetarako maiatzaren 16a baino lehen egin behar dira eskaerak.

### ◆ Txapa Irratia

Datorren egunetan honako hau izango da Txapa Irratiaren (FMko 97.0) programazioa: gaur ostirala *Plastikozko janaria* (20.00etan) eta *Music adiction* (21.00etan), igandean *Atzo hala, gaur hola eta bihar ez dakit nola* (15.00) eta *Epilogo* (17.00) eta asteazkenean, hilak 13, *Ilunpetik* (21.00).

### ◆ Sari banaketa

Udaleko Ongizate Zerbitzuak Emakumearen egunaren inguruan antolatutako argazki lehiaketako sari banaketa egingo da gaur ostirala, 7etan, Pol-Polen.



Urtean bi garbiketa egiten dira barruko igerilekuetan, irailean bat eta neguan bestea.

## Igerilekuak larunbatean zabalduko dira berriz garbiketa egin ondoren

### Gimnasioa eta goiko aldagelak gaur zabalduko dira

Udal igerilekuak bihar larunbata, martxoak 9, zabalduko dira berriz jendearentzako, astean zehar Osakidetzak aginduta garbiketa orokorra egin ondoren. Osakidetzak urtean bi garbiketa egitea agintzen du. Lehena barruko igerilekuak zabaldu aurretik, irailean egin zen eta bigarrena neguan zehar egiten da. Astelehenetik asteazkenean igerilekuetako langileek igerilekuak hustu eta garbitzeaz gain, Irati enpresak instalakuntza guztiak desinfektatzeko tratamendua burutu zuen atzo osteguna.

Beharrezko lanak egin ondoren, gaur ostirala goiko aldagelak eta gimnasioa zabaltzekoak ziren eta bihar, esan bezala, pizina zabal-

duko dira ohizko ordutegiarekin, astebarruan 8etatik 20.30etara eta larunbat, igande eta jaiegunetan 8etatik 18.30etara. Pizina beranduago zabaldu dira urak ez zuelako Osakidetzak agindutako tenperatura. Ostegunean 15 ° Ctan zegoen eta Osakidetzak 22-27 ° Ctan egotea eskatzen du.

Bestalde Kirol Zerbitzuak emandako datuen arabera, 1.045 bazkide eta 2.444 erabiltzaile dira. Erabiltzaileen artean 1.731 18 urtetik gorakoak eta 713 lagun 18 urtetik beherakoak. Sexuari dagokionez gizonen zekoak dira nagusi gutxigatik: 1242 gizonen zekoak dira eta gainontzeko 1.202ak emakumeak. Kirol Zerbitzuaren arabera bazkide kopurua ia zokoaren antzekoa da.

# URKIOLA

## BURDINAKI DENDA

*Denda itxi behar dugula eta, %50eko deskontuak*

• MUGERTZA GAINA • BERGARA •


%50

# ONENA

## TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA





**Igandeko bozketen ondoren**, hiru irabazle nagusi agertzen zaizkigu. Alde batetik, EAJ, 1993ko hauteskunde orokorrekin konparatuz, 391 boto irabazi dituelako; Bestetik, PP eta IU, 168 eta 160 boto gehiago lortu dituztelako eta udal hauteskundeak izango balira, zinegotzi bana izango lituzketelako Bergarako Udalean. PSE-EEK ere, 42 boto irabazi ditu eta lazko udal hauteskundeetan erakutsitako beharko joerari buelta eman dio oraingoan.

**Botoak galdu dituztenak**, HB eta EA izan dira. HBk 203 boto gutxiago jaso ditu eta EAK, berriz, 91.

**Auzoka begiratzuz gero**, esan behar da Ibarra eta Martokon HB nagusitu dela, azken bozketetan gertatu den bezala eta EAJ beste lauretan garaile izan da. Azpimarratzekoa da, EAJk Osintxun irabazi egin duela eta zatiketa ondoren Orokorretan lortzen duen lehen garaipena lortu zuela igandean EAJk.

**Berrigarak astelehenean** banatutako hauteskunde Orokorrei buruzko 3.000 orriak oso harrera ona izan zuten herritarren artean.



Abstentzioa %30ekoa izan zen igandeko bozketetan, azkenaldiko baxuenetakoa.

### Hauteskunde Orokorrak zonaldeka (1996 eta 1993ko kongresuko emaitzak)

	Botoemaleak		Abstentzioa		PNV		EAJ		Bestetik		EA		Partido Popular		IU	
	1996	1993	1996	1993	1996	1993	1996	1993	1996	1993	1996	1993	1996	1993	1996	1993
<b>ERDIALDEA</b>	3.974	3.644	1.727	1.838	1.244	1.023	920	992	492	487	703	707	316	256	202	136
<b>MATXIATEGI</b>	2.345	2.339	1.042	1.278	642	535	618	703	455	456	292	344	156	133	128	95
<b>MARTOKO</b>	1.454	1.242	695	831	331	288	333	331	335	286	158	160	125	74	121	75
<b>IBARRA</b>	685	666	346	438	197	192	245	283	57	52	89	109	41	17	22	7
<b>OSINTXU</b>	361	372	170	215	145	130	128	138	19	35	36	49	19	9	7	7
<b>GUZTIRA</b>	<b>8.819</b>	<b>8.263</b>	<b>3.960</b>	<b>4.600</b>	<b>2.559</b>	<b>2.168</b>	<b>2.244</b>	<b>2.447</b>	<b>1.358</b>	<b>1.316</b>	<b>1.278</b>	<b>1.360</b>	<b>657</b>	<b>489</b>	<b>480</b>	<b>320</b>



## Ekologia

### Artea (*Quercus ilex*)

- Zuhaitz egunean haritza, artea eta pagoa landatu zenituzten...

- Landatutako lursailaren erdian lur sakona eta ona zegoen eta bertan pagoa eta haritza landatzea erabaki zen. Bi alboetan, berriz, lur gutxiko terrenoa zegoen, harria gainazalera irtetzen zen eta gainera terreno eguzkitsua zen. Artea sartzeko oso leku egokia zela ikusi zen. Gainera inguru hartan, San Martzialen, badira arte gazte batzuk irtezen eta arte zaharrak ere bai. Horrek erakusten du terreno aproposa zela horretarako. Guztira, 150 arte inguru landatu ziren.

- Zeintzuk lirateke artearen ezaugarriak?

- Hostoak oso tipikoak izaten dira, urte guztian berde-berde mantentzen dute hostoa. Hosto koriazeoak (gogorrak) dira eta ertza ondulatua eta puntatxoekin izaten dute. Oso zuhaitz haundia eta ederra da eta 25 metroko altura izan dezake. Haritzaren kasuan bezala, fruitua ezkurra izaten da.

- Bergaran non auki dezakegu artea?

- Garai batean egongo ziren baso txikietatik oso gutxi geratzen da gaur egun. Lehen ere ez ziren artadi haundiak egongo baina orain askoz ere gutxiago dago. Artadi txikiak Elorregin (San Pruden-



**IÑAKI IRIZAR**  
(Mendia Bizirik)

tziotik Oñatira bidean ezker aldean) edota Angiozar aldean topa ditzake-

gu. Angiozarren gainera ale suelto dexente geratzen da.

Horrez aparte, Txara eta Ipintza baserrien artean arte oso eder bat zegoen, baina haizeak bota egin zuen orain aste batzuk. Santa Anan ere badago beste bat, Murinondo auzoan ere badira eta kalean ere bai, bata Irizar jauregian eta Usondon bestea. Duela urte gutxi batzuk sartu ziren kalekoak eta biak oso ondo daude.

- Berez nongo espeziea da artea?

- Mediterraneo aldekoa da. Baina Kantauri isurialdeko leku batzutan ematen diren baldintza onak aprobetxatuz hemen bastante dago, Gernikako itsasadarrean, esate baterako. Bestalde, artea asko erabili izan da ikatzetarako eta askotan gutxi baloratu da, baina gaur egun hori aldatzen ari da eta horren adibidea San Martzialgo landaketa izan daiteke. Anekdotak modura, esan daiteke zuhaitz horren bariedade baten ezkurak jabugo txerriek jaten dituztela urdaiazpikoa egiteko. Ezkurra oso gozoa da eta Extremadura aldeko jendeak garai batean gariarekin nahasten zuen irina egiteko. Eta ezkur hauek gaztainen antzera erreta jateko ohitura ere baze-  
goen.

### "150 arte inguru landatu ziren Zuhaitz egunean San Martzialen, oso toki egokia da"



Argazkian, Santa Anan dagoen artea.

A  
R  
R  
A  
N  
O



**Taberna**

Kruz Gallastegi BERGARA

**LONBIDE  
OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5

☎ 76 10 57

**BERGARA**



## V. KAPITULUA

# SAN PEDROKO GRAND ORGUE

**Ariznoako San Pedroko parrokiak, beste artelan bikain batzuen artean kalitate handiko organo frantsez bat gordetzen du.**

**H**onen aurrekoak izan dira, Lehenengo berriak 1524. urtekoak omen direlarik, baina oraingoan gure arreta gutzia egungo organoan ipiniko dugu; 1889. urtean, Pariseko Stoltz-ek eraikitako instrumentu bikainean.

### Organo handia

**G**rand orgue izen frantseza da, organo handia edo "gran órgano" da bere esanahia. Organo mota baten izena da, garai konkretu batekoa, edo estilo batekoak dira; erromantikoak, eta tamaina haundikoak. Organogintza erromantikoaren sorkuntzarik lortuek dira. Frantsez izena erabiltzen da (grand orgue) zeren mota horretako instrumentu asko herri horretakoak baitira.

### XIX. mendearen azken erdialdekoa

**X**IX. mendearen azken erdialdean, San Pedroko "Junta de fabrika"k organo berri bat behar zela erabaki zuen, eraikuntzaren

handitasun eta maila artistikoarekin bat etorri behar zena.

Garai hartako organo-etxe ospetsuek euron proiektuak bidali zituzten Bergarara, organo berria egiteko irrikiaz: Cavaille-Coll, Merklin eta Stoltzek aurkeztu zituzten euren proiektuak eta azkena aukeratu zuten.

### 36.500 franko

**P**ariseko Stoltz anaien lana 1889ko martxoaren 18an inauguratu zen. Prezioa 36.500 franko izan zen eta donazio bidez ordaindu ziren. Donazio egilea, Doña Martina Maiz izan zen, Blanc-en alarguna, Algodonera-koa.

Instrumentuak hiru teklatu, pedaliera eta 36 erregistro dauzka. Bitxikeria bezala, normala den baino tonu-erdi beherago dago afinatua. Donato Gallastegik honen arazoia koruko abeslarien ahotsa ez nekatzean topatzen du. Hau arrazoi bat da, eta bestea izan liteke ohituraz organo barrokoak tonu erdi beherago afinatzen zirela, eta behar bada kantoreek ohituta zeuden afinazio hura kontserbatzeko gogoia izango zuten, nota altuekin ez ge-

# BERGARAKO ORGANOAK

hiegi nekatzeko. Egia esan, abesteko orduan, tonu-erdi beherago egoteak lasaitasun handia eman dezake, teno-reentzat batik bat.

### Bi fatxada

**O**rganoak bi fatxada dauzka. Nagusia korura begira dagoena, bertan Ama Birjiña eta bi aingeru tronpetekin ageri dira. Albo-ko fatxadan, aldiz, elizarantz begira, San Matias, alabarda batekin, Bergarako gremioen zaindaria. Konsola edo teklatu-en gainean urrezko koloreko letra haundiz, salmo bateko

pasarte bat: "Laudate dominum in tympano; et choro: Laudate eum in chordis; et órgano".

Organogile eta organojole gutziek ahobatez gorai-patzen dute organo hau. Euskal Autonomi Elkartearen, "Grand orgue" delakoak zazpi daude, eta Stoltz etxeoak bi besterik ez, Tolosakoa eta geurea.

Organoa inauguratu zenean badirudi Alba izeneko ministro bat etorri zela. Organoaren 75. urteurrena ospatzeko kontzertu bat eman zuten Sudupe organogile frantziskotarrak.

### Musikagile askok jo dute

**O**rgano honetan musikagile askok jo dute, eta kontzertuak eman. Joaquin Pildain tolosarrak grabazio bat ere bertan egin zuen (gauetz egin zuen, kotxeen zarata ager ez zedin). Besteak beste, Marcell, Rilling, Sagasta, Echeveste, Zubizarreta, González Bastida, Guallar, Torrent, Elizondo...

Aurtengo azaro-abendu musikalean bi izen gehiago erantsi zaizkio zerrenda luze honi: Willibald Guggenmos eta Jose Manuel Azkue.



ERA HONETAKO ORGANO BI DAUDE GIPUZKOAN.



# Zuk zer diozu?

## Emakume langilearen eguna

**Urtean zehar emakumea, emakume izatea ia ez da aipatu ere egiten. Gaurko egunez, martxoaren 8an, ostera, aipamen hutsez bada ere, nonahi emakumea nagusi-**

**tzen da. Gure erreportaian ere emakumea da ardatz: Bost emakume eta sei galdera aukeratu, eta galdera horien inguruan dituzten iritziak jaso ditugu.**

### Saioa Berraondo

22 urte. IVEF-SHEE ikaslea.

1. Ez. Ama lanean dabil eta etxean denok berdina gara. Aitak eta anaiek ere egiten dituzte etxeko-lanak, eta borondatez. Batzutan behar bada anaiek gutxiago egiten dute, baina ez mutilak direlako, denok bezala ahalik eta gutxien egiten saiatzen direlako baizik.

2. Gizartean diskriminazioa badago. Gertatzen da detaile txikiak (bromak, txistek...) direla eta ohituta gaudela. Ni, esaterako, ezin naiz soziedadetan bazkide izan. Behin aitaren elkartean afaria genuen lagunok. Niri sukaldean sartzen laga ez zidatenez, aita eta

lagunak ibili ziren sukaldari; eta ez ni bazkide ez nintzelako, neska nintzelako baizik. Gainera, txarrera da matxismoa justifikatzeko erabiltzen duten arrazoiak: 'emakumeak nahikoa lan egiten du etxean eta hemen ez du egin beharrik'. Nik edo nire amak ez dugu esku-biderik soziedadean gure lagunekin afaltzeko?

3. Gurean bai, baina badakit etxe guztietan ez dela hala.

4. Berdintasuna eskatu behar dugu. Egunean zehar gertatzen diren gauza txiki horien aurrean, onartzen ez dugunaren aurrean... ezin gara isilik geratu. Protestatu, kartak bjaldu... Feminismoa orain dagoenaren aldeantizkoko lortzeko helburutzat ez dut hartzen, berdintasunerako bideztat baizik. Emakumeen matxismoa balitz gizo-

nezkoen tranpan jaustea litzateke.

5. Emakumearen eguna ala emakume langilearen eguna? Etxekoandrea, kobratzen ez duenez, ez da langiletzat hartzen eta, duda barik, langilea da. Emakume guztien eguna da gaur. Emakumearen eguna badago zerbaitegatik da, arazorik ez balego

ez litzateke egongo. Dena den, egun batekin ez da ezer konpontzen; urteko egun guztietan egin beharko litzateke lan. Hailere, egun hori aurrerapausoak eta arazoak aldarrikatzeko ondo dator.

6. Koadrilan elkartu eta ekitaldiren batean parte hartzen dugu. Gaur ere egingo dugu zer bait.

**"Emakume izateagatik soziedadean lagunekin ezin dut afaldu". SAIOA.**

**1 Emakume izateak desberdin egiten zaitu?**

**2 Gizartean diskriminaziorik ikusten duzu?. Zuk bizi izan duzu?**

**3 Zuen etxean badago berdintasunik?**

**4 Emakumeak zer aldarrikatu edo egin behar du?**

**5 Emakume langilearen eguna egon behar dela uste duzu?**

**6 Gaur, martxoaren 8a dela eta, zer bait egin behar duzu?**



# Nekane

## Berasategi

27 urte. Langilea.

1. Desberdinak bagara, baina ez gehiago edo gutxiago. Harro nago emakume izateaz.

2. Diskriminazioa badago, batez ere lan munduan eta lan teknikoetan, nik bizi izan dut. Orain arte lan teknikoetan ez da emakumerik izan eta zaila da mundu horretan sartzea. Oro har, emakumeak lan munduan galtzekoa du: haurdun gertzeko beldur da, nagusiek gutxiago erantzungo ote duen errezeloa dute...

Nik lehenengo lan bila joan nintzeneko departamentu buruaren hitzak gogoan ditut. Esan zidan postu hartarako lehen emakumea nintzela eta nire erantzunaren arabera emakume gehiago hartu ala ez pentsatuko zutela. Izugarritzko erantzunkizuna zen. Ingenieritza teknikoko beste lagun bati gertatu zitzaiona ere... Departamentuan denak gizonezkoak zirela-eta beharbada ez zela onartua izango adierazi zioten. Lana hartu ala ez erabakitzea bere esku laga zuten. Gogorra da, lana berea zen, lanerako ahalmena ez zuten kontutan hartu ere egin, neska izatea zen arazoa.



"Eguneroko gauza txiki guztien aurrean berdintasuna eskatu behar dugu". SAIOA BERRAONDO.

3. Etxean dena nik egiten dut, baina dugun ordutegiagatik. Senarra eta biok etxean gauden bion artean egiten du-

gu: afaria, ontziak... Harelere, biok astia izanez gero ez dakit zer gertatuko litzatekeen.

4. Berdintasuna alda-

rrikatu behar dugu, batez ere lan munduan, oraindik zeregin handia dugu eta. Beste herrialde eta kultura batzutan beste arazo batzuk, beharbada oinarritzkoagoak izango, dituzte, guk batez ere lan munduko berdintasuna behar dugu.

5. Bai. Horrelako egun bat egon ezean arazo asko eta asko aipatu ere ez lirateke egingo, eta egun hori dela-eta arazo ugari gogorarazten dira. Hemen go zain 3. munduko eta beste era bateko emakumeei gertatzen zaiena aipatzen da.

6. Bai, baina kasualidadez. Lagun batzuk afaria dugu; martxoaren 8a ostirala zela-eta ondo zertorkigunez hartu genuen egun hau.



"Lante knikoetan diskriminazioa dago". NEKANE BERASATEGI.



# GAZTELU

## BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA



# Arantxa Garitano

Etxekoandrea. 47 urte.

1. Emakumeak eta gizonetzkoak desberdinak gara. Oraindik emakumeak alde batera eta gizonetzkoak bestera gabilta, zaletasunetan, gustotan.... desberdinak gara.

2. Gero eta gutxiago, baina gutxi edo asko, emakumea oraindik diskriminatuta dago. Lanean, gauzak egiteko garaian...

3. Etxean gero eta berdintasun gehiago dugu. Alabak lan gehiago egin arren, semeak ere egiten du, eta senarrak ere laguntzen du asteburuetan. Nik uste etxean alabak zein semeak berdin lan egin beharko luketela, baina errazagoa da egiten duenari agintzea.

4. Berdintasuna eskatu behar dugu lanean eta arlo guztietan. Geu izaten ikasi behar dugu, gure nortasuna gehiago azaltzen, hemen gaudela garbi aldarrikatu behar dugu.

5. Emakumearen eguna ez litzateke ospatu behar, baina ospatu egiten dugu. Reibindikatzeko eguna da.

6. Aspalditik ospatzen dugu: urtero lagunak elkartu eta bazkaltzera joaten gara; primeran pasatzen dugu.



"Emakumearen eguna ez litzateke ospatu behar". ARANTXA GARITANO.

**"Geu izaten saiatu eta gure nortasuna azaldu behar dugu". ARANTXA.**

## Karmen Laskurain

66 urte. Jubilatua.

1. Desberdinak gara, sentimentalagoak, seme-alabez gehiago ardurtzen gara...

2. Orain desberdina da, gutxiago dago. Lehen lan batean emakume bat ondo aritu arren gizonetza hartzen zen.

3. Gurean semeek alabek bezala egin izan dute lan. Orain ere juntaizak egiten ditugunean amantala lasai asko janzten dute. Senarrak, berriz, lehen laguntzen zidan, baina jubilatuta dagoenetik gehiago.

4. Etxekoandreentzat soldata. Nire garaian

etxekoandre izan garenok jubilatuta ostean ez dugu pezeta bat ere, alargun geratuta ere erdia baino gutxiago ematen digute. Horregatik joaten da gaur egun hainbeste emakume lanera.

5. Nik uste baietz. Emakumeok lan egin dugu, beti lanean dihardugu eta merezi dugu horrelako egun bat. Egindako lanaren ordaina da. Nola-bait esateko, aintzat hartzen gaituztela adierazteko modua da.

6. Ezer ez.

**"Aintzat hartzen gaituzte adierazteko modua da martxoaren 8a". KARMEN.**

Zure  
konfidantzako  
denda



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE



# Loli Agirrebeña

40 urte. Langabetua.

1. Emakumea desberdina da, desberdin hezi gaituztelako; dena heziketa kontua da. Beharbada, heziketa desberdina jaso bagenu berdinak izango ginen.

2. Giroan ikusten da diskriminazioa, baina horretan gizonaek eta emakumeak berdin jokatzen dugu: "emakumea zaren" esaten digute gizonaek; guk, berriz, esaten dugu, "badakizu, gizona..." Beraz, denok berdin ibiltzen gara.

Nik diskriminaziorik ez dut bizi izan, beharbada izan dudana lanagatik. Beste lan batzuetan desbedina izango da.

3. Ahaleginak egiten ditugu.

4. Lehenengo emakumeak bere burua estimatu behar du, eta aurrera jarraitu onarekin eta txarrekin. Eta beste gauza bat, gauzak eskatuz ez da ezer



"Arlo guztietan, lanean, etxean, auzoan edota harremanetan, lan eginez lortuko dugu berdintasuna".  
LOLI AGIRREBEÑA.

lortzen, zerbait lortuko badugu lana eginez izango da. Lana txindurrien moduan, arlo guztietan egin behar dugu: lanean, etxean, auzoan, harremanetan...

4. Soberan dago. Diskriminatzeko modu bat da. Gizonak ez dute egun bat, bada emakumeok zertarako? Berdintasuna nahi

badugu denean izan beharko du.

Halere, erreibindikatzeko, zenbait gauza gogoratzeko ondo dago.

5. Ezer ez.

Emakumeak etxeakoandrentzat soldata edo dirulaguntza eskatu behar dugu". KARMEN LASKURAIN.



*Martxoaren 8a, emakumearen eguna dela eta, Udaleko Ongizate Zerbitzuak Berrigararekin batera banatu duen errebistatxoan azaltzen zaizkizu egun horri buruzko hainbat datu. Irakurtzen baldin baduzu aldameneko galderari erantzuna aurkituko diozu. Asmatu erantzuna, bete txartela eta ekarri asteazkena baino lehen Berrigarara. Sari sorpresa bat daukagu zuretzat.*

## Woman's day izeneko emakumearen lehen egunak zein helburu zeukan?

ERANTZUNA: .....  
IZENA: .....  
ABIZENAK: .....  
TELEFONOA: .....





## Emakumea izateagatik diskriminatuta sentitu izan zara?



**Izaskun Regil**  
26 urte, langilea

Bai, lana topatzeko orduan bai. Probaren batetan gertatu zait mutilen antzeko emaitzak izan eta azkenean mutilak aukeratzea.



**Pili Kortazar**  
43 urte, langilea

Maila orokorrean bai baina partikularrean ez. Uste dut norberaren lana dela diskriminatuta ez sentitzea.



**Ane Alberdi**  
30 urte, langilea

Ez dakit zer esan, ez zait ezer berezirik gertatu. Detaile txikitan somatzen duzu batzutan eta lana topatzeko zailtasun gehiago ditugula esango nuke.



**Catalina Hurtado**  
60 urte, etxekoandrea

Ni sekula ez naiz diskriminatuta sentitu. Beti komentatu izan da hori baina niri behintzat ez zait tokatu.



**Begoña Arzelus**  
35 urte, langilea

Ez, orain arte ez dut igarri. Bueno etxean mutilei gauza gutxiago agintzen diete baina ez dakit hori diskriminazioa den.



**Mari Nieves Mujika**  
39 urte, etxekoandrea

Ez, lan munduan ere orain arte ondo moldatu gara eta. Emakumea izateagatik behintzat ez dut diskriminaziorik inon somatu.



*Juan Cruz*

**ARGAZKIDENDA**

**ARGAZKIAK**

**EZKONTZA ERREPORTAIK**  
Jaunartze erreportaiak  
Momentuko argazkiak

**BITXITEGIAK**

Marrokineria  
Erlojuak eta bitxiak  
Aukera zabala oparietan

**Herriko plaza, 4 Telefonoa: 78 70 66**





## Egia unibertsala

Estatu-etnozentrismoak hedatzen duen errepresentazio kolektiboa, ideologia frantses edo espainiarraren kontzientzia alegia, eguneroko bizitzaren zirrikitu orotatik barneratzen da, gure gizartean dauden erakundeek etengabe indartzen baitituzte ekintza eta sinboloen bidez etnozentrismoaren baloreak, bertakoak ahulduz edo ezabatuz.

Zentrismoak balore horien inguruan sortzen duen bertsioa benetako eta naturaltzat hartzen da, demokrazia, modernotasun eta unibertsaltasunari buruzko beren bertsioaz ari naiz. Bestetik, horrela gureganatzen dugun neurrian, geure alienazioaren subjektu bihurtzen gara.

Balore horiek modu horretan harturik, euskal gizartearen desoreka eta desintegrazioaren prozesua areagotzen dute. Gainera, guzti hau ikuspegi manikeista batetik egiten da, periferietako nazionalismoari tradizionalista, fundamentalista, desfasatua, irrazionala eta horrelako estereotipoak eransten baitizkiote, betiere nazionalismo horrek agerian jartzen badizkio sistemaren disfuntzioak.

Komunikabide askok prozesu hau biziki bultzatzen dute, berauek sortu eta eraikitzen duten errealtatea natural bezala erakutsi nahi digute eta, baina horren ordez errealtate zatikatua eta standartzatua eskeintzen digute; beraz, euskal gizartearen muinera iristeak beste irakurketa bat eskatzen digu, mozorrorik gabekoa, kritikoa alegia.

**Aitxus IÑARRA**



## Bozketen ondorengoa

• Hauteskunde eguna pasa eta handik egun gutxitarako zerbait idazteko eskatzen badizute, buelta handirik ez diozu ematen zure buruari. Eskaera jaso bezain pronto idatzien gaia zein izango den argi eta garbi daukazu: hauteskundeetako emaitzei buruzko zerbait. Eta hori izan zen nik pentsatuta nuena Berrigaratik galdetu zidatenean aste honetarako ea posiblea nuen zertxobait idaztea. Printzipioz, martxoaren 4a hauteskundeetako emaitza definitiboak eza-gutzeko eguna izan behar zen, emaitza horiek aztertzen hasteko eguna, baina guzti hau bigarren planoan gelditu zen ertzain baten hilketaren berri izan genuenean.

Ez dudala ezertxo ere ulertzen esan beharra daukat. Ertzain honen hilketa, eta alde zurretik izan direnak, ez gaituzte inora eramaten. Hilketa honen zergatiak ez du inolako erantzunik. Aski da. Armak baztertzea, hori da gehienok nahi duguna. Pakean bizitzea dugu heiburu, baina badirudi biolentziaren arazoa, zoritxarrez, luzerako doala.

Ertzain honi, edo beste edozeini, bizitza horrela kentzen diotenean ez da batere erreza hitz egitea konponbidez, nolakoa izan behar den, zein pauso eman behar diren eta abar..., baina aurrera ateratzeko hitz egin behar baldin bada, hitz egin dezatela hitz egin behar dutenek eta bake-rako bidean jartzen bagara ongi etorria izan dadila bake prozesu hori. Baina, horrelako bidea hasteko borondatea behar da, eta Irungo ertzain honek jasan duen atentatuak, beste antzerako ekintzek, bahiketek eta abar, ez digute hori erakusten. Beraz, horrelako ekintzak gaitzetsiz jarraitu beharko dugu.

**Ane Miren LIZARRALDE**



Bizkaia Etorbidea, 1  
etxabea

*Elena*



Tfnoa: 77 14 24







■ **Urrezko eztaiak**

**Julian Elortza** eta **Felisa Aldekoa** angiozartarek (ezkerreko argazkian) beren ezkontzaren urrezko eztaiak ospatu zituzten larunbatean. Dagoeneko 50 urte igaro dira 1946ko otsailaren 28an Felisa eta Julian ezkondu zirenetik eta urrezko eztaiak ospatzeko larunbatean senitartekoekin Angiozarren bildu ziren. Orduan bezala, San Miguel Goiaingeruaren parrokian

meza entzun ondoren bazkaria egin zuten Taberna Zaharra jatetxean. Bestalde, **Bixente Moñux** eta **Iñaxi Etxaniz** bergararrek (eskuman) ere ospakizun eguna izan zuten larunbatean beren ezkontzaren urrezko eztaietan. 1946ko martxoaren 2an San Pedron ezkondu ziren Iñaxi eta Bixente. 50 urte ondoren familiartekoekin bildu ziren egun berezi hori ospatzeko. Loiolan meza entzun ondoren bazkaria egin zuten Kiruri jatetxean. Zorionak lauri!!



■ **Despedida afaria**

Ez dira ez Aranzabal Lagunarteako lagunak hauek. Bihar larunbata, martxoak 9, **Jon Loidi** bergararra eta **Leticia Deusto** bilbotarra Bilbon ezkonduko dira eta aurreko larunbatean Jonen lagunek soltero despedida egin zioten Donostian. Realeko jantzi eta sinboloekin Meridatik etorri berriak zirela ematen zuen. Realaren garaipenaz gain ospatu beharreko guztia ospatu zuten goizalderarte. Zorionak Jon eta Leticiairi!!

**KONDE**

**PANADEROKUA**

Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

**ZUBIAURRE**  
**aroztegia**

Sarrerako eta barrurako atek, horma armairuak, tarimak, egurrezko eta PVCzko leihoak, era guztietako arotz lanak...

Zubiaurre, 2 ☎ 76 15 14 / 76 35 73

**ARGI PLASTIC**

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...  
Leihoak, atek, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik**

Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA  
Fabrika: Zigarroia 1, 8. pabiloia ARRASATE  
Tfnoa: 76 55 02 Faxes: 77 11 30



■ **Urkuluko parke naturala**

Joan zen asteartean, hilak 26, **Aranzadi ikastolako 5. mailako ikasleek Urkulun izandako zuhaitz landaketan** hartu zuten parte. Bailarako 750 ikasle bildu ziren Kutxaren Gazteen Elkarteko XXV.



urtemugaren inguruan antolatutako landaketan. Ekintzaren helburua Urkulu parke natural izatearena da eta horretarako ikasleek gogor lan egin zuten, 1.100 zuhaitz (urkia, lizarra, sahatsa eta altza) landatu baitziren. Larunbatean ere beste landaketa bat egin zen Urkulun. Bestalde, ikastolako ikasleek adierazi digutenez, ezin izan zuten Bergaran otsailaren 17an ospatutako Zuhaitz egunean parte hartu eskola kiroletako partiduak zituztelako. Hurrengo urtean izan behar...

**Zertan dihardute ba?**



**Amaia Labaien** 28 urteko bergararrari adjudikatu zaio Kultur Etxeko Bideo gela zerbitzua. Amaia Labaienek Irudi eta Soinu ikasketak egin zituen Andoainen eta azken 3 urtetan Kultur Etxeko bideo gela lan egin du. Bideo gela zerbitzua eskuratzeko hiru eskaintza jaso ziren eta lehiaketan Amaia Labaienek eskuratu zuen puntuaziorik onena. Islada bideo gelak herritarrei zuzendutako hainbat bideo ikastaro antolatu ditu azken urteetan. Islada bideo gela Kultur Etxeko lehen solairuan dago, Kultur Etxeak lehen zuten lokalean hain zuzen ere, eta arratsaldez egoten da zabalik.

■ **Beste bisiesto bat**

Pasa den ostegunean, otsailak 29, **Maddi Elorza Agirregabiria, Karmele** eta **Jesusen** lehen alaba jaio zen. Hain fetxa berezia izanik orrialde hauetara ekarri dugu. Maddi Arrasateko Ospitalean jaio zen goizeko 2.23etan eta 3,085 Kg. ko pisatu zuen.



Egunotan senideen lehen bisitak jasotzen ari da Uberan eta guztiak pozez gainezka daude Maddiren etorrerarekin. Hala ere, lehen urtebetetze ofiziala egin arte 8 urte itxaron beharko du 2004 urtera arte ez baita beste otsailaren 29rik izango. Bien bitartean gurasoak zorionduko ditugu...

**FERNANDEZ**



**Oihal puskak  
Oihalak**

San Antonio, 3  
☎ 76 22 93

Ibargarai, 2  
☎ 76 53 22

**MUGICA**

**GOXOTEGIA**



- Pastelak
- Errellenoak
- Tostoiak
- Tartak

Artekale, 3  
☎ 76 10 34

**TOKI-ONA**

**Bodegoia-taberna**

*Eguneroko janariak / Txitxizotzak  
Kazoltxoak / Txabierroak*

Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53



# Maria Eugenia Igarza

**Igarza dendako Maria Eugenia Igarza bi alabaren ama da. 14 urte zituenetik dabil lanean - orain 47 ditu- eta Bedelkar Bergarako dendarien elkarteko mertzeria-lentzeria arloko arduraduna da.**

- Beste zerbaitetan lan egitea gustatuko litzaizuke?
- Ez. Oso gustora nabil lan honetan.
- Gertatu zaizun bitxikeriaren bat kontatuko diguzu?
- Lehengoan neska gazte bati dirua galdu zitzaion dendan. Ez dakigu neska nor den eta nola bueltatu.
- **Bikinia bainujantzia baino sexyagoa da?**
- Biak izan daitezke sexyak.
- **Wonderbra inoiz erabili duzu?**
- Bai, udan eskoteekin polita da.
- **Nola jantziko zenituzke gizonetako politikoak?**
- Kaltzontzilo hankadunekin eta kamisetá barik.
- **Larruzko abrigoa ala bitxi dotoreak?**
- Bitxiak, urte guztirako direlako.
- **Saltzaileak zer izan behar du beti kontutan?**
- Bezeroa gustora laga behar du erositakoarekin.
- **Kafea azukrearekin?**



*“Dantza karibearrak dantzatzea asko gustatzen zaizkit, Gloria Estefan oso gustoko dut. Eguzkitako antiojoak beti erosten ditut poltsan, telebistan futbola gehiegi ematen dute eta barre errezekoa naiz”*

- Kafezalea naiz eta behar den bezala hartzen dut, bi azukre koxkorrekin.
- **Askotan geratu zara afaltzeke?**
- Ez, beti jan behar da zedozer.
- **Tintea ala permanentea?**
- Permanentea, tintea esklaboa da.
- **Zapata baxuak ala takoidunak?**
- Baxuak. Takoidunekin ibiltzen jakin egin behar da, zaratatsuak dira...
- **Musika entzun orduko mugitzen hasten zara?**
- Bai, dantza karibearrak gustatzen zaizkit, Gloria Estefan...
- **ONG batean lan egingo zenuke?**
- Sekula ez dut planteatu.
- **Egunen batean telefono mobilarekin ikusiko zaitugu?**
- Inoiz ez. Etxean eta dendan ere traba egiten dit.
- **Urtebeteko atsedena hartuta zer egingo zenuke?**
- Pare bat bidaia, Europan zehar.
- **Buruko mina zerk?**
- Laneko arazoek.
- **Zerk eragiten irribarrea?**
- Edozer gauzak, barre erreza dut.
- **Telebistan zer ezin duzu ikusi?**
- Futbola, egunero dago partiduren bat.
- **Kalean Picassoren kuadro bat aurkituz gero...**
- Etxera eramango nuke.
- **Gaur, martxoaren 8an, zerbait egiteko asmorik?**
- Etxetik kanpo bazkaldu.

## Amets



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak
- Zango erremolkeak
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50

AMETS TAILERRAK  
Berezano auzoa OÑATI

## Sugoi

**ERLOJUAK, ARTIKULO  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua, 2 behea  
☎ 76 59 54 BERGARA



DEBA

**GARAIA**

**INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA**

Arrasate / Bergara / Elgoibar

T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

## IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia  
Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA



**ETXEBIZITZA**

**Pisu** eguzkitsua Maduran salgai. ☎ 76 45 03.

**Pisua** alokatuko genuke Bergaran. ☎ 76 25 31 (Alex) edo 76 13 64 (Aitor).

**Pisua** salgai herri erdian. ☎ 76 39 64.

**Pisua** salgai Barrenkalen. Berriztuta. ☎ 78 70 30.

**Etxe** berria Masterrekan salgai. ☎ 76 49 87.

**Pisua** salgai Burdiñaten. 70 m<sup>2</sup>. ☎ 76 38 06.

**Lokala** alokatzen da Bidekurutzetan. ☎ 76 36 99.

**Garajea** salgai Ibargarain. 22 m<sup>2</sup>. ☎ 76 44 25.

**Lokala** alokairuan Koldo Eleizalden. ☎ 76 37 69.

**Garajea** (2 plaza) salgai Aranerrekan. ☎ 76 06 96.

**Pisua** salgai K.Eleizalden 25ean. ☎ 76 09 37/53 55.

**Pisua** alokatzen da Antzuolan. ☎ 76 64 65.

**Taberna** alokatzen da. ☎ 76 46 90.

**Garajea** salgai Bolun (2 plaza). ☎ 76 54 11.

**Garajea** alokatzen da San Lorentzon. ☎ 76 29 33.

**DENETARIK**

**Txakurrarendako** kasetaxikia salgai. ☎ 76 09 12.

**Montesa** H7 Enduro motorra salgai. ☎ 76 31 40.

**Igarza** mertzerian dirua galdu bazaizu bertatik pasazaitzke jasotzera. ☎ 76 24 88.

**Hi-Fi** kate txiki bateko bifaile salgai. ☎ 76 52 31.

**Suzuki** GSx 600F motorra salgai. ☎ 76 20 26 (gauz).

**Urrezko** pultsera galdu nuen otsailaren 25ean. Sarituko da. ☎ 76 24 33.

**Eraztun** bat galdu nuen Karnabal domekan taberna bateko komunetan. ☎ 76 23 82.

**Renault 4** F6 kotxea salgai. ☎ 76 22 11.

**Ford Sierra** kotxea (SS-AD) salgai. ☎ 76 33 10.

Bigarren eskuko **karabina** erosiko nuke. ☎ 76 24 31.

**Musika** bateria salgai. la berria. 55.000. ☎ 76 08 58.

**Bizikletan** aritzeko rodilloa erosiko nuke. ☎ 76 18 78.

**R-14 kotxea** (SS-N) saltzen dut. Oso merkea. ☎ 76 03 93.

**Pekines** txakurkumak salgai. ☎ 76 26 92.

"Imar" karro-denda salgai. ☎ 76 58 62 (gauz).

**Opel Corsa** (SS-U) kotxea salgai. ☎ 76 46 54.

**Zorro** bat (walk-manarekin) galdu dut Usoako plazan. ☎ 76 31 05 (losune).

**LANA**

**OHO** eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 40 89 (Gemma).

**Matematika** eta zientzietako klaseak. ☎ 76 03 72.

**Ingeles** klaseak ematen ditut. ☎ 76 06 56 (Irene).

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

**Klase** partikularrak ematen dira. ☎ 76 33 26.

**Matematika** klaseak. ☎ 76 06 50.

**Etxeko** lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89

**Etxeko lanak** egin eta haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 08 82 (Isabel).

**Aleman** diplomatuak klaseak emango lituzke. ☎ 76 12 77 (Maite).

**Neska** batek haurrak edo zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 46 14 (Pili).

**Aleman** diplomatuak arratsaldez klase partikularrak emango lituzke. ☎ 76 04 93 (Idoia).

**Matematika** (Enpresaritza maila) klaseak hartuko genituzke. ☎ 76 26 82.

**Zaharrak** zainduko nituzke, egunez zein gauz. ☎ 76 11 11.

**LAZKANO****Oinetakoak**

Barrenkale, 15  
☎ 76 25 03

**Masterreka 24**

*Nepal, India eta Hego Amerikako jantziak*

Masterreka, 24 BERGARA

**MARGO ERAKUSKETA**

*Victor Jesús González*

**NAIKARI**

Taberna  
Masterreka, 20 ☎ 76 57 71

*Deco-Textil*  
**ZANGITU**

Etixerako lenteria  
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak  
Bisiloak, tapizak, etab.

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69



Barrenkale, 4 ☎ 76 18 14



# BONOFOTOA



## Carlos Aldai

**Carlos Aldai**k jaso du aste honetan BONOFOTOkoko saria, aurrekoan egin genizuen galdera berak asmatu duelako. Bergaran eta Gipuzkoan zehar sakabanatuta dauden hainbat irudi egin dituen bergarar eskultore ospetsuaren izena galdetzen genizuen.

Erantzun zuzena hau zen: **Martzial Agirre.**

Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Carlos Aldai**ri eman dizkiogu. Zorionak!!

**Zein da elkarte honen izena eta zein urtetan sortu zen?**

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

Saria  
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta  
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA  
Errotalde Jauregia Bergara





## 1. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. BAR CANALEJAS	31	13	47	14
2. ERROTAGAIN	28	12	42	20
3. OGIZUN	26	13	45	38
4. MONGATXURRA	25	13	53	27
5. MADURA INDUSTRIAS GOL	22	12	39	29
6. KABIA	19	13	30	32
7. BILDURBAREK OPEL/LAM	14	12	29	34
8. ORTZI	13	13	22	41
9. ARLOTEAK	12	12	21	28
10. OZAETA	4	12	29	60
11. UFALA	3	12	29	61
12. BERGATRANS	0	0	0	0

## 2. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. JAUJA OH ZEREZOS	39	15	105	48
2. A ZE FLAXA	35	15	54	36
3. PAGOMENDI	29	15	68	47
4. ARTUSAMAK	26	14	53	38
5. UVE BIKOITZA	19	15	42	59
6. NAIKARI HOOLIGANS	19	15	55	57
7. ETXAGI	16	15	62	74
8. KAYAK OS JARDINEIROS	16	15	64	56
9. HALTZARI	15	14	33	59
10. AUTOBEREZI	12	13	42	54
11. INDARGORRI	12	14	18	37
12. ERI	11	15	38	55

## 3. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. SOROPOTROAK	39	16	88	45
2. KIROLZALEAK	37	15	80	41
3. NEKROFIKOS	27	16	66	66
4. EZINLEIKE	27	16	73	45
5. LA JUVE	25	15	47	48
6. AMOZKIBAR	23	14	35	24
7. MOSKIS	23	16	41	61
8. CONSTRUCCIONES BERGARA	22	16	53	57
9. EH BITERRAK	14	14	28	59
10. IGANDEKOAK	10	15	35	63
11. ARI ARI	9	16	59	75
12. SHAKTALE	8	15	29	57

## 4. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. FAC	34	14	73	29
2. GUADALEST	32	14	62	25
3. TXIPIRON	28	14	54	33
4. PJS	28	14	62	37
5. OSINTXU	23	14	58	47
6. MATXAKATEGI	20	14	59	63
7. LABEGARAIETA	18	14	47	63
8. PATA NEGRA	17	14	46	45
9. PATXARAN TEAM	16	14	43	80
10. ALDOKA MALDOKA	10	14	41	38
11. XURRUPAK	0	14	22	92

## TALDEAK



**PJS** taldea Imanol Ruiz, Igor Garmendia, Raul Dacosta, Aitor Telleriarte, Aitor Solaun, Iñigo Gómez, Haritz Etxaniz, Iker Barbero, Luis Mari Dacosta eta Miguel Díazek osatzen dute. Taldekide guztiak Martokua eta Zubiaurrekoak dira, eta 3. mailara igotzea dute helburu. Txapelketan 5 urte inguru daramatzate elkarrekin jokatzeko, La Txupeta izenarekin hasi arren. PJSren esanahia Peña Julio Salinas da, esan digutenez, eurentzat aurrelari bilbotarra onena baita. "Ez dago bera bezalako aurrelaririk Espainiako ligan" diote PJSkoek.

## PARTIDUAK

### LARUNBATEAN BARRUAN

10:00: Kirolezaleak-Shaktale • **Igandekoak**

11:00: Amozkibar-Igandekoak • **Shaktale**



### IGANDEAN BARRUAN

09:00: Txipiron-Xurrupek • **La Juve**

10:00: EH Biterrak-La Juve • **Xurrupek**

11:00: Pata Negra-Patxaran T. • **EH Biterrak**

12:00: Haltzari-Autoberezi • **Bildurbarek**

13:00: Madura-Bildurbarek • **Haltzari**

16:00: Arloreak-Ozaeta • **Errotagain**

17:00: Errotagain-Ufala • **Ozaeta**

18:00: Indargorri-Artusamak • **Matxakategi**

19:00: Matxakategi-Guadalest • **Artusamak**

## EMAITZAK

### 1. MAILA

OGIZUN-ORTZI ..... **2 - 1**

BAR CANALEJAS-MONGATXURRA ..... **6 - 2**

### 2. MAILA

PAGOMENDI-UVE BIKOITZA ..... **3 - 5**

ETXAGI-KAYAK OS JARDINEIROS ..... **4 - 3**

JAUJA OH ZEREZOS-ERI ..... **4 - 4**

NAIKARI HOOLIGANS-A ZE FLAXA ..... **3 - 6**

### 3. MAILA

EZINLEIKE-NEKROFIKOS ..... **3 - 4**

CONSTRUCCIONES BERGARA-MOSKIS ..... **1 - 3**

SOROPOTROAK-ARI ARI ..... **4 - 3**

### 4. MAILA

PJS-OSINTXU ..... **3 - 2**

GUADALEST-FAC ..... **4 - 0**

LABEGARAIETA-ALDOKA MALDOKA ..... **5 - 3**

## TALDEAK



**Ezinleike** taldea Iñaki Larrañaga, Javier Azkarate, Román Durana, Josu Ruiz de Azua, Angel Bideluze, Mikel Eraña, Patri Bideluze, Andoni Durana, Jose Mari Arzelus, Ander Beristain eta Iñaki Aranak osatzen dute. Dagoeneko 10 urte daramatzate txapelketan jokatzeko eta lehen mailan ibili diren arren, aurtengo denboraldian 3. mailan daude. Halere, datorren urtean mailaz igotzea espero dute "baldin baleike". Izenari dagokionez, Delirium Tremens talde mutrikuarraren abesti ezagun batetik hartutakoa dela esan digute.



## T XINPARTAK

### Josean Tolosaren omenaldiko dirua

Oxirondo elkarteak Josean Tolosari eskeinitako omenaldian 236.500 pzta. ko etekina atera zuen eta diru hori BKEko pelota sailarentzat izango da. Tolosaren omenaldira 600 bat lagun inguru joan ziren eta sarreretan 313.800 pzta. atera zituzten. Bestalde, Kutzak 100.000 pzta. jarri zituen, Azpeitxi eta Epi kristaldegia berriz 50.000 pzta. bakoitzak eta Josean Tolosak, berak, 15.000 pzta. ko dirulaguntza eman zuen. Lerro hauen bitartez Oxirondokoek eskerrak eman nahi dizkiete omenaldian lagundu eta parte hartu zuten guztiei.

### Nesken futbitoa

BKEko lehen errejonaleko futbol taldeak 2 eta 1 irabazi zion Ilintxa liderrari Agorrosinen jokatuako partiduan. Emaizta horrekin mailaz jeisteko arriskuan jarraitzen duten arren, mailari eusteko aukerak gehitu zaizkie Manu Díazen mutilei. Bestalde, talde nagusiak 2 eta 0 irabazi zion Roteta taldeari eta pixkanaka sailkapenaren erdiko postuetara gerturazten ari dira.



Klaus Möller danimarkarrak irabazi zuen iazko edizioan, 20 minutu eta 20 segunduko denborarekin.

# Txirrinduzaleen zita igandean Gorlako igoeran

**Igandean** jokatu da afizionatu eta beteranoen XXII. txirrindularien Gorlako igoera. Beteranoak goizeko 11,30etan irtengo dira eta afizionatuak, berriz, eguerdiko 12etan hasiko dira igotzen.

### 8 kilometro maldan gora

Irteera San Martin plazatik egingo da eta guztira 8 km eta 500 metro egin beharko dute bi kategorietan. Lasterketaren antolatzaileek, Bergara txirrindulari elkarteak, adierazi digutenez, oraindik ez dago zehaztuta zenbat txirrindulari izango diren irteeran, baina 100 edo 120 inguru espero dituzte San Martin plazako irteeran.

Joan zen urtean irabazle izan zen Klaus Möller txirrindulari danimarkarra ez da izango irteeran, ohiturari jarraituz

profesionaletan baitabil.

### Errekorra, Alfredo Irustak

Bestalde, palmaesari begiratu, 1991an Alfredo Irusta bizkaitarrak 21' 09" denborarekin lortutako errekorra oraindik indarrean dago. 1992ko irabazlea, berriz, gaur egun ONCE taldean dagoen Iñigo Cuesta izan zen eta duela bi urte Santi Blanco, gaur egun Banesto taldean dagoena izan zen.

Beteranoen lasterketan, berriz, azkenengo bi urteetan Jose E. Fernández izan da irabazlea, baina oraindik urrun dago Koldo Lamikiz bergararrak lortutako 8 garai-penetatik.

Antolatzaileek gogoratzten dute Gorlarako bigarren ibilgailuentzat goizeko 11etan itxiko dutela eta eskatzen diete kotxez joaten direnei antolatzaileen aginduei kaso egitea. Dena prest beraz, XXII. Gorlako igoerarako.





**KARTELDEGIA**

**FUTBOLA**

- ◆ **Bergara-Hondarribia**  
2. mailako jubenilak.  
Larunbata, 17.15. Ipintza.
- ◆ **Bergara-Amaikak Bat**  
2. mailako kadeteak.  
Igandea, 11.30. Ipintza.
- ◆ **Bergara-Real Union**  
Lehen mailako infantilak.  
Igandea, 10.00. Ipintza.

**NESKEN FUTBITOA**

- ◆ **Blue Sar-Push Team**  
Igandea, 16.00.  
Migel Altuna Institutua.  
Kantxa nagusia.
- ◆ **Almondigak-Potzu T.Z.**  
Igandea, 17.00.  
Migel Altuna Institutua.  
Kantxa nagusia.
- ◆ **Guk-Berdin Du**  
Igandea, 16.00.  
Migel Altuna Institutua.  
Bigarren kantxa.

**ESKUBALOIA**

- ◆ **Bergara-Hondarribia**  
Jubenil mutilak.  
Larunbata, 16.15.  
Labegarieta kiroldegia.
- ◆ **Bergara-Aloña Mendi**  
Kadete neskek.  
Larunbata, 17.30.  
Labegarieta kiroldegia.
- ◆ **Bergara-Aloña Mendi**  
Jubenil neskek.  
Larunbata, 19.00.  
Labegarieta kiroldegia.

**PALA TXAPELKETA**

- ◆ **Osintxuko frontoian**  
larunbat arratsaldean,  
ordu 2etatik aurrera, sei  
partidu jokatuko dira.

# Ana Belastegi

## Baloia saskian sartzea helburu

**Ana Belastegik 17 urte ditu eta duela 6 urte eskolan tenisaren ala saskibaloiairen artean, bigarrena aukeratu ondoren BKEko junior taldean ala-pibot postuan jokatzen du eta taldeko saskiratzaile onenetarikoa da. Gipuzkoako 14 talderen artean 4. postuan daude eta Belastegik 3. postuan amaitzea espero du.**

**- Zer moduz doa denboraldia?**

- Aurtun iaz baino hobeto, 4. goaz eta 3 onenen artean geratzea espero dugu. Halere datorren urtean seniorrak izango gara eta ez dakit talderik izango dugun.

**- Emakumezkoen kirolean talde seniorrik ez izateak ez al dizu penarik ematen?**

- Saskibaloian gainera gutxiago, orain gero eta jende gehiago eskubaloian apuntatzén baita. Ni jarraitzeko prest nago, baina asko kanpora joaten dira ikastera eta ez dakit talderik izango dugun.

**- Saskibaloian gehien gustatzen zaizuna zer da?**

- Ez dakit, gehienbat lagunartean dugun giroa da politena, noizean behin afaritxoren bat edo egiten dugu eta ondo pasatzen dugu. Gainera entrenamenduak ez dira oso gogorak izaten eta asteburuetakoa irteeretan ondo pasatzen dugu.

**- Irteeretan nola moldatzen zarete?**

- BKEen ez dago diru-

rik eta gurasoen kotxeetan joaten gara, hauek asfero txandakatu egiten dira. Gurasoak normalean gustora etortzen dira, baina batzutan gogorra egiten zaie igande goizetan gu eramatea.

**- Gustora ala-pibot postuan?**

- Bai, zona barruan eta kanpoan jokatzen dut. Azken partiduetan batez ere, zona kanpoaldean gehiago jokatzen ari naiz.

**- Zerbait falta zaizue hobeto ibiltzeko?**

- Jende gutxi gaude taldean, 8 bakarrik eta aulkitxoan 3 besterik ez izaten ditugu, eta jendea

saskibaloian jokatzeraren animatzen dut; taldean 12 jokalaririk izateko behintzat. Horretaz gain, fisikoa gehiago lantzea ere falta zaigu, 2. zatira nekatuta heldzen gara eta. Hori hobetzeko zer egin behar dugu? uztailean korrika egiten hasi gorputza lantzeko.

**- Emakumezkoen kirola nola ikusten duzu?**

- Gaizki, neska izatearren beti okerrago jokatu behar dugula uste dute askok, mutilen berdina ez dugu jokatzen, baina badakigu saskibaloian jokatzen.



11 urte zituenean hasi zen saskibaloian jokatzen.

**"Neska izatearren beti okerrago jokatu behar dugula uste dute askok"**





## Labegaraietako Haur Eskolan

Rakasleak lan dexente izango zuen ikasle talde bihurri honekin. Argazkia 1973/74 ikasturtekoa da eta bertan agertzen direnak Altos Hornoseko haur eskolako ikasleak dira. Liburuak eta jolasak alde batera laga eta argazkilariak formal-formal kamara, aurrean jarri ahal izan zituen. Hori meritua... Ea asmatzen duzuen zeintzuk diren. Badaezpada, listia pasauko dugu. Ezkerretik eskumara:

**Zutik:** Lurdes Martínez, Uxue Azkarate, Mari Jose Curado, Garbiñe Jauregi, Nuria Zapata, Vitori Muñoz eta Maria Rosa Castillejo.

**Erdian:** Iosu Luarizaristi, Jose Ramon Etxeberria, Joseba Azkargorta, Andoni Azula, Aitor Aranzabal, Jose Angel Moraza eta Iñaki Aranzabal.

**Aurrean:** Itziar Miota, Noel González, Felix Irizar, Bernardo Miota, Roman Zenitagoia, Jose Ignacio Urkiola, Mikel Urkiola eta Jon Ander Unamuno.

*Argazkia: Nora Azkarate*

### ZUBIETA

elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA  
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea  
☎ 76 23 48



umelaga  
JATETXEA

San Antonio,  
5 BERGARA  
☎ 76 20 21

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!



# MUNIOLA GASOLINDEGIA



OSINTXU (Bergara) ☎ 76 29 61

## ZERBITZEKO LANGILEAK

- GARBIKETA TUNELA • ASPIRAGAILUAK •
- PRESIO BIDEZKO ESKUZKO GARBIKETA • GURPIL PUZTEA •
- SUPERMERKATUA •

**5.30etatik  
22.30etara  
EGUNERO  
ZABALIK**







**Eta orain toki aldaketarik  
%50erainoko beherapena.**



**a, eme. sukaldeak**

Zerkaosteta, 3 • ARRASATE • Tfnoa: 79 15 03